

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

**Lanpostua: INGURUMEN ETA OSASUN PUBLIKOKO
IKUSKATZAILEA**

1. ariketa

TEST-GALDERAK

1. Ariketak **74** galdera ditu, eta bakoitzean 4 erantzun ematen dira aukeran.
2. Gogoan izan **90** MINUTU dituzula ariketa egiteko.
3. Zuzeneko puntuazioa emateko formula hau baliatuko da: zuzeneko puntuazioa = asmatutakoen kopurua – erroreen kopurua / n-1; n = erantzuteko aukeren kopurua.
4. Lortzen den zuzeneko puntuaziorik altuena 20,00 punturekin parekatuko da, eta puntuazio horren % 50 izango da ebaketa-puntuazioa (10,00).

Deialdia: 2017/01/11

Eredua:

D

Ez ireki esan arte.

- 1.- Herritarren postontziari gagozkiolarik, adieraz ezazu adierazpen hauetatik zein den OKERRA:
 - a) Mezu edo komentarioak gaika ordenatzen dira postontzian, eta gaiak arloka.
 - b) Hainbat gai batera ukitzen dituzten mezuak planteatzeko aukera ematen du postontziak.
 - c) Mezu pribatuak planteatzeko aukera ematen du postontziak.
 - d) Postontzia erabiltzeko bilatzailea baliatzea gomendatzen da.

- 2.- Herritarren postontziari gagozkiolarik, adieraz ezazu adierazpen hauetatik zein den OKERRA:
 - a) Udalaren erantzunak anagrama batekin identifikatzen dira, udal armarriarekin.
 - b) Gardentasun-politika dela eta, Udalak ezingo ditu ezabatu herritarrek sartu dituzten mezuak.
 - c) Herritarrek 010 telefonoan modu publikoan planteatzen dituzten gaiak Udalaren webgunean erakusten dira.
 - d) Identifikazio digitala edo datu pertsonalak eskuz sartzea nahitaezkoa da Herritarren postontzian parte hartu ahal izateko.

- 3.- Substantzia edo elementuren bat gehitu edo kendu zaien ondasunak egin, banatu, hornitu eta saltzea, gehitze edo kentze hori ondasun edo produktuen konposizioa, egitura, pisua edo bolumena iruzur egiteko asmoz aldatzeko, berez eta arauz baimenduta ez dauden prozesu eta prozeduren bidez akatsak zuzentzeko edo erabilitako produktuen kalitate baxuagoa edo aldaketak ezkutatzeko egiten delarik, zer da?:
 - a) Kontsumitzaileak babestearen arloko arau-haustea.
 - b) Araudiaren kontrako arau-haustea.
 - c) Klandestinitate arau-haustea.
 - d) Horietako bat ere ez.

- 4.- Aditibo edo sustantzia ezezagunak sustatu, jateko saldu, erabili edo edukitzea, baldin eta indarrean dagoen arautegian jateko produktu edo elikagai horien elaborazioan aipatu sustantzien erabilera baimenduta ez badago, eta kontsumitzaileen osasunarentzat zuzenean arrisku larria sortzen badute,
 - a) arau-hauste arina da.
 - b) arau-hauste larria da.
 - c) arau-hauste oso larria da.
 - d) ez da arau-haustetzat jotzen.

- 5.- Gizakiaren kontsumorako ez diren edo beste erabilera espezifikotarako diren produktuak pertsonak kontsumitzeko desbideratzea,
 - a) arau-hauste oso larria da.
 - b) arau-hauste arina da.
 - c) ez da arau-haustetzat jotzen.
 - d) arau-hauste larria da.

- 6.- Produktuak faltsifikatzea edo faltsifikatutako produktuak saltzea, zer da?:
 - a) Araudiaren kontrako arau-haustea.
 - b) Klandestinitate arau-haustea.
 - c) Iruzur arau-haustea.
 - d) Faltsifikazioa zenbaterainokoa den.

- 7.-** Beren zereginetan dihardutelarik, ikuskatzaileek... (okerreko erantzuna adierazi)
- a) agintari-izaera izango dute.
 - b) beste edozein agintariren laguntza eskatu ahal izango dute, baita Estatuko Segurtasun Kidegoena ere.
 - c) zuzenean izango dute sarbidea dokumentazio industrialera.
 - d) zuzenean jo ahal izango dute epaitegira.
- 8.-** Ikuskatzaileek arau-haustea izan daitekeela uste duten gertakariren bat ikusten dutenean, akta egingo dute, eta bertan jasota utziko... (okerreko erantzuna adierazi)
- a) interesdunaren zirkunstantzia pertsonalak.
 - b) ikuskatutako enpresari buruzko datuak.
 - c) prozedura zigortzailearen oinarri izango diren gertakariak.
 - d) BEZaren aitortzei dagozkien datuak.
- 9.-** Lanbideko isiltasuna estu gordetzeko obligazioa izango dute ikuskatzaileek. Betebehar hori ez betetzea hauen ildotik zigortuko da:
- a) zerbitzua ematen duten administrazio publikoaren diziplina-erregimenaren araudiko arauen ildotik, Estatuko funtzionario zibilen araudikoen osagarri gisa.
 - b) Zigor Kodean jasotako arauen ildotik.
 - c) kontsumoari buruzko legetako arauen ildotik.
 - d) Horietako bat ere ez.
- 10.-** Laginak hartzen direlarik, honela jasoko da akta:
- a) aktaren gutxienez hiru ale egingo dira, ikuskatzen den enpresa edo establezimenduaren titularraren aurrean, edo haren legezko ordezkariaren edo arduradun baten aurrean, eta, halakorik ezean, edozein saltzaileraren aurrean.
 - b) aktaren gutxienez bi ale egingo dira, ikuskatzen den enpresa edo establezimenduaren titularraren aurrean, edo haren legezko ordezkariaren edo arduradun baten aurrean, eta, halakorik ezean, edozein saltzaileraren aurrean.
 - c) aktaren gutxienez hiru ale egingo dira, ikuskatzen den enpresa edo establezimenduaren titularraren aurrean, edo haren legezko ordezkariaren edo arduradun baten aurrean.
 - d) aktaren gutxienez hiru ale egingo dira, edozein saltzaileraren aurrean.
- 11.-** Pertsona fisiko eta juridikoak, elkarteak eta entitateak behartuta egongo dira, organo eskudunek edo ikuskatzaileek hala galdatuz gero...
- a) instalazio, produktu edo zerbitzuen gaineko edonolako informazioa ematera, eta ikuskatzaileei bertatik bertara egiaztatzen uztera.
 - b) ikuskapen-bisitak egiten uztera eta horretan era guztietako erraztasunak ematera.
 - c) egin diren transakzioak, aplikatutako prezio eta marjinak eta horien osagarri diren kontzeptuak justifikatzeko balio duen dokumentazioa erakustera.
 - d) horietara guztietara.
- 12.-** Kontsumitzaileen babesaren eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren alorreko arau-haustek eta zehapenak arautzen dituen 1945/1983 Errege Dekretuan aipatzen diren arau-haustek...
- a) bost urteren buruan preskribitzen dira.
 - b) hiru urteren buruan preskribitzen dira.
 - c) lau urteren buruan preskribitzen dira.
 - d) ez dira preskribitzen.

13.- Oso larrizat jotzen den arau-hausterik gertatuz gero...

- a) arau-haustea egin duen enpresa, establezimendua edo industria aldi baterako ixtea dekretatu ahal izango da, gehienez bost urterako.
- b) arau-haustea egin duen enpresa, establezimendua edo industria aldi baterako ixtea dekretatu ahal izango da, gutxienez bost urterako.
- c) arau-haustea egin duen enpresa, establezimendua edo industria aldi baterako ixtea dekretatu ahal izango da, gehienez hamar urterako.
- d) arau-haustea egin duen enpresa, establezimendua edo industria aldi baterako ixtea dekretatu ahal izango da, gutxienez bost urterako.

14.- Janarien prestakuntza, banaketa, horniketa nahiz salmenta, baldin eta janariok gizakiari gaixotasunak sortu edo transmititzeko moduko germen, sustantzia kimiko edo erradioaktibo, toxina nahiz parasitoak badituzte, edo gaiaren gaineko arauetan ezarritako mugak gainditzen badituzte...

- a) arau-hauste oso larria da.
- b) arau-hauste arina da.
- c) arau-hauste larria da.
- d) delitua da.

15.- Zabortegiko efluente likidoen nolako laginak hartzen dira piezometroetan?

- a) Lurpeko urak.
- b) Lixibiatuak.
- c) Euri-urak.
- d) Azaleko urak.

16.- Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara —Gardelegiko zabortegira— eraman aurretik, hondakinaren ekoizleak konpromiso-agiri bat eduki behar du, Gasteizko Udalak —zabortegearen kudeatzaileak— IKSeem sistemaren bitartez izapidetua, hondakina zabortegian onartua izan dadin. Izapide hori egin ondoren, Udalak baimendu edo ukatu egiten du hondakinak botatzeko eskabidea. Zer da agiri hori?

- a) Onartzeko eskabidea (SA).
- b) Onartze-agiria (DA).
- c) Jarraipen- eta kontrol-agiria (DSC).
- d) Kontrol- eta jarraipen-agiria (DCS).

17.- Hondakin hauetatik, zein ezin dira onartu Gardelegiko zabortegian, Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen 49/2009 Dekretuaren arabera?:

- a) 1400 mm-tik gorako kanpo-diametroa duten pneumatikoak.
- b) Papera, kartoia, egurra.
- c) Adreilu erregogorak.
- d) Ur zikinen araztegitik harea kentzetik sortzen diren hondakinak.

18.- Zein baldintzatan ez da hondakinik onartu behar Gardelegiko zabortegian?

- a) Lehergarriak badira.
- b) % 65etik gorako hezetasuna badute.
- c) 50° C-tik gorako tenperatura badute.
- d) Hiru baldintza horietako edozein egokitzen bada.

19.- LER kode hau: 06 09 04 “Erreakzioko kaltzio-hondakinak, 06 09 03 kodean adierazitakoez bestelakoak”, zein motatako hondakinei aplikatzen zaie?

- a) Arriskutsutzat sailkatutako baten baliokide den (ispilu-sarrera) LER kodea duen hondakina.
- b) Balioa eman dakiokkeen hondakina.
- c) Hondakin geldoa.
- d) Arriskutsu ez den hondakina.

20.- Gardelegiko zabortegian hondakin bat onartzerakoan, prozedura hierarkizatu bat jarraitu behar da, hiru kontrol-mailatan banatua. Zein ordenatan egin behar dira kontrol horiek?

- a) Bertatik bertara egiaztatu – Probak egin, baldintzak betetzen diren – Oinarrizko ezaugarritzea
- b) Oinarrizko ezaugarritzea – Probak egin, baldintzak betetzen diren – Bertatik bertara egiaztatu
- c) Probak egin, baldintzak betetzen diren – Bertatik bertara egiaztatu – Oinarrizko ezaugarritzea
- d) Oinarrizko ezaugarritzea – Bertatik bertara egiaztatu – Probak egin, baldintzak betetzen diren

21.- Hondakin batek Europako Hondakin Zerrendan (LER) ispilu-sarrera duenean, zein zehaztapen eskatu behar zaio hondakinaren ekoizleari ezaugarritzea egiteko, 49/2009 Dekretuan gainerako hondakinei dagokienez galdatzen direnez gain?

- a) Perkolazio-entsegua, CEN/TS 14405en arabera.
- b) Lixibatze-entsegua, UNE 12457/4ren arabera.
- c) Arriskugarritasuna ezaugarritzea.
- d) Oinarrizko ezaugarritzea.

22.- Gardelegiko zabortegian uzten diren hondakinen gainean adostasun-probak egiten direlarik, izatera ofiziala izan dezaten, zenbat zatitan banatu behar da lagina?

- a) Bi alikuotatan, bata zabortegiko laborategirako eta bestea ekoizlearentzat.
- b) Lagina ez da banatzen.
- c) Bi zatitan, bata zabortegiko laborategirako eta bestea zalantzak ebazteko analisisa egiteko.
- d) Hiru zatitan: bata zabortegiko laborategirako —horren gainean egingo da adostasun-proba—, bestea ekoizlearentzat eta hirugarrena, berriz, zalantzak ebazteko analisisa egiteko.

23.- Zein motatako hondakinari dagokio definizio hau?: “Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko garrantzitsurik nozitzen ez duen hondakin ez-arriskutsua. Ezin dira disolbatu, ezta erre ere, eta ez dute erreakzio fisiko ez kimikorik, ezta beste inolako erreakziorik ere; ez dira biodegradagarriak, eta ukitzen dituzten materialei ez diete eragiten ingurumena kutsatu edo gizakien osasuna arriskuan jar lezakeen kalterik.”

- a) Geldoak.
- b) Arriskutsu ez direnak.
- c) Hiri-hondakinekin pareka daitezkeenak.
- d) Hondakin egonkor ez-erreaktiboak.

24.- Hondakin jakin bat Gardelegiko zabortegian onartu daitekeen ala ez jakiteko baliatzen diren irizpide haueetatik, zein da nahikoa, bera bakarrik, hondakin bat onargarria ez dela erabakitzeke?

- a) Balioa ematea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenari dagokionez bideragarri ez dela alde aurretik justifikatuta geratu den hondakina.
- b) Arriskutsu ez den hondakina.
- c) Zabortegira eraman aurretik tratamenduren bat eman zaion hondakina.
- d) Hondakin infekziosoak.

25.- Zertan datza zabortegietan hondakinak onartzeko prozeduran deskribatzen den hondakinen oinarritzko ezaugarritzea, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen 49/2009 Dekretuaren arabera?:

- a) Hondakin baten parametro jakin batzuen (parametro kritikoen) libiazio-portaera aldizka egiaztatzea, hondakin horrek finkatutako onartze-baldintzak edo erreferentziako irizpide espezifikoak betetzen dituen ala ez zehazteko.
- b) Zabortegira iristen den hondakin bat zabortegiak lehendik —oinarritzko ezaugarritzearen bitartez eta betetze-probetan— onartutako bera den, hau da, segimendu- eta kontrol-dokumentuetan azaltzen den bera den bizkorki egiaztatzea.
- c) Hondakin baten ezaugarriak eta haren libiazio-portaera ezartzea, analisi-metodo normalizatuen bitartez, eta betetze-probetan egiaztatu beharko diren parametroak hautatzea.
- d) Hondakina birziklatzeko edo balioa emateko aukerarik dagoen egiaztatzea.

26.- Zein motatako efluenteetan zehaztu behar da emaria, Gardelegiko zabortegiko Ingurumen Baimen Integratuan galdatzen denez?

- a) Zabortegiko libiatuak.
- b) Lurpeko urak.
- c) Azaleko urak.
- d) Ibaiko urak.

27.- Zein motatako efluenteetan zehaztu behar da maila, Gardelegiko zabortegiko Ingurumen Baimen Integratuan galdatzen denez?

- a) Zabortegiko libiatuak.
- b) Lurpeko urak.
- c) Azaleko urak.
- d) Ibaiko urak.

28.- Zertan datza hondakinak libiatzeko entsegu bat, UNE EN ISO 12457-4 arauaren arabera?

- a) Eluatoen analisia. Amoniakoa, AOX, eroankortasuna, merkurioa, fenolen indizea, TOC, zianuroak eta fluoruroak zehaztea.
- b) Lagina, zeinek jatorriz edo aurretratamendu baten ondoren 10 mm-tik beherako partikula-tamaina baitu, urarekin kontaktuan jartzen da, kondizio jakinetan, eta 24 orduz astintzen, eta azkenik hondakin solidoa iragazpenaren bitartez bereizten.
- c) Likido baten eta hainbat eratako likidoetatik bereizitako solidoen nahastura, prozesu natural edo artifizial baten ondorio.
- d) Digestioa, azido fluorhidriko, azido nitriko eta azido klorhidriko nahasturarekin, mikrouhinez lagunduta, ondoren elementuen zehaztapena egiteko.

29.- Noiz egin ahal izango da perkolazio-testa (PNE-CEN/TS 14405) eta onartzeko irizpide gisa test horretarako finkatutako onarpen-mugen balioak aplikatu?

- a) Hondakin baten oinarritzko ezaugarritzea egin behar den guztietan baliatu ahal izango da.
- b) UNE 12457 libiazio-arauaren arabera lortutako emaitzak zabortegi mota jakin bateko onarpen-mugen balioak gainditzen dituztenean bakarrik —baina ez muga horiek halako hirutik gora—, salbu eta Solido Disolbatuak Guztira parametroari dagokionez, horretan ez baita mugabaliarik ezartzen perkolazio-testean.
- c) Emaitzek Zabortegien 99/31/CE Zuzentarauaren II. eranskinean ezarritako onarpen-irizpideak betetzen ez dituztenean.
- d) Libiazio-portaera zehaztea eskatzen ez den hondakinen kasuan, edo hondakin geldoen edo udal hondakinen nahasturak direnean.

30.- Euskadiko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren arabera, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak dira:

- a) ingurumena mehatxatzen duten arriskuen aurreko babes.
- b) beren interes sozial legitimoen babes.
- c) babes juridiko, administratibo eta tekniko.
- d) aurreko guztiak.

31.- Euskadiko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren arabera, adieraz ezazu zein den okerra:

- a) Euskadiko merkataritza-establezimendu guztiek erreklamazio-orriak eduki behar dituzte.
- b) Araudi bidez ezarriko dira erreklamazio-orrien ereduaren ezaugarriak.
- c) Erreklamazio-orriak baliatzea ez da bateragarri Zuzenbidean onartutako beste edozein bitarteko erabiliz erreklamazioak aurkeztearekin.
- d) Idatziz aurkezten diren erreklamazio guztiei erantzun beharko die administrazio eskudunak, interesdunei idazkia bidaliz.

32.- Euskadiko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren arabera, arau-hauste hauetatik, zein ez da informazioaren, zaintzaren, ikerkuntzaren, ikuskaritzaren, tramitazioaren eta betearazpenaren arlokoa:

- a) Kontsumitzaile eta erabiltzaileei berme-agiria ez ematea.
- b) Merkataritza-establezimenduek arauko erreklamazio-orriak ez edukitzea edo ez ematea.
- c) Ikuskatze-lanak errazteari uko egitea edo oztupoak jartzea.
- d) Agintari eskudunek konfiskatutako merkantziak manipulatzeko.

33.- Elikagaienezko alerta azkarreko sistemen barruan, jatorrizko jakinarazpen bat honela dago sailkatuta (adieraz ezazu okerreko erantzuna):

- a) Alerta-jakinarazpena.
- b) Jarraipenerako informazio-jakinarazpena.
- c) Jarraipen-jakinarazpena.
- d) Mugan errefusatzearen jakinarazpena.

34.- Alerta-jakinarazpenak argitaratzeari dagokionez, batzordeak argitara dezake:

- a) sarearen bitartez transmititutako jakinarazpenen hileko txostena.
- b) sarearen bitartez transmititutako jakinarazpenen hiru hileko txostena.
- c) sarearen bitartez transmititutako jakinarazpenen urteko txostena.
- d) Batzordeak ezin du jakinarazpenik argitaratu.

35.- Esazu zein den zuzena:

- a) Peritu-proba analitikoak laborategi ofizialetan egingo dira beti.
- b) Lagin baten hasierako analisia egiten duen laborategiak dagozkion emaitza analitikoak emango ditu, inoiz ere ez du txosten tekniko egingo.
- c) Hasierako analisiaren emaitzatik arau-haustea izan direla ondorioztatzen bada, dossier zigortzailea abiaraziko da.
- d) Kontrasteko analisia egiteari berariaz edo isil-bidez uko egiteak ez du esan nahiko hasierako analisiaren emaitzak onartzen direnik.

36.- Adieraz ezazu zein den erantzun okerra:

- a) Gizakiek jateko den edozein substantzia edo produktu da elikagaia.
- b) Elikagaien barruan sartzen da txiklea.
- c) Elikagaietan ez dira sartzen hondakinak eta kutsatzaileak.
- d) Landareak ez dira elikagaiak, uzta bildu aurretik.

37.- Kontsumitzaileei ematen zaien informazioari buruzko Europako araudiaren arabera, ez da galdutako honako elikagai hauetan osagaien zerrenda adieraz dadila:

- a) Ur karbonikoak, izendapenean ezaugarri hori ageri delarik.
- b) Fruta eta barazki freskoak.
- c) Osagai bakarra duten elikagaiak, nahiz eta elikagaiaren izena osagaiarena bera ez izan, eta osagaiaren izaera identifikatzeko aukerarik ez eman.
- d) Zuritu edo moztu ez diren, edo antzeko beste tratamenduren bat jasan ez duten patatak.

38.- Substantzia hauetatik, zein ez dago alergia edo intolerantziak eragiten dituzten substantzien zerrendan?

- a) Apioa.
- b) Arto-zerealak.
- c) Espelta-zerealak.
- d) Eskuzuriekkin egindako produktuak.

39.- Substantzia hauetatik, zein dago alergia edo intolerantziak eragiten dituzten substantzien zerrendan?

- a) Arroz-zerealak.
- b) Sesamo-aleak.
- c) Garagarra oinarri duten glukosa-jarabeak.
- d) Guztiz birfindutako soja-haziaren olio eta koipea.

40.- Adieraz ezazu zein kasutan ageri behar duen, elikagaiaren etiketan, aipamen gehigarri bat:

- a) Kafearekin fabrikatutako edariak, zeinetan elikagaiaren izendapenak kafe hitza barne hartzen baitu.
- b) Barazki izoztuak.
- c) Haragi-prestakin izoztuak.
- d) Elikagai ontziratuak.

41.- Txikizkako denda batean ontziratu gabe aurkezten diren elikagaiek nahitaezko informazio hau eman behar dute: (adieraz ezazu okerreko erantzuna)

- a) Alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten substantziak.
- b) Osagai baten edo osagai-kategoria baten kopurua.
- c) Iraungitze-data edo kontsumo lehenetsiaren data.
- d) Alkohol-gradua, bolumenaren % 1,2tik gorako graduazioa duten edarrietan.

42.- Txikizkako denden titularrek erosleek erosteko unean hala eskatzen dietelako ontziratzen dituzten elikagaiek, informazio hau eraman beharko dute: (adieraz ezazu erantzun okerra)

- a) Elikagaiaren izena.
- b) Osagai baten edo osagai-kategoria baten kopurua.
- c) Iraungitze-data edo kontsumo lehenetsiaren data.
- d) Alergiak eta intolerantziak eragiten dituzten substantziak edo produktuak.

- 43.-** Txikizkako litxarrerria-denda baten titularrak halakoak ontziratatu egiten baditu, ondoren establezimenduan bertan saltzeko, hau jarri behar du etiketan: (adieraz ezazu erantzun zuzena)
- Elikagaiaren izena eta osagaien zerrenda.
 - Elikagaiaren kopuru garbia, eta gutxieneko iraupen-data edo iraungitze-data.
 - Ontziratzailearen izena edo izen soziala, eta helbidea.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 44.-** Esazu zein elikagaitan ageri behar duen aipamen berezi bat edo gehiago, etiketan:
- Azido glizirrikoa edo haren amonio-gatza duten elikagaiak.
 - Gas jakin batzuetan ontziratutako elikagaiak.
 - Edukoratzaileak dituzten elikagaiak.
 - Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 45.-** Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera, zer jotzen da hondakin geldotzat?
- Indarrean dauden arauetan arriskutsutzat jotzen ez diren hondakinak.
 - Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko garrantzitsurik nozitzen ez duten hondakin ez-arriskutsuak.
 - Egonkortze-prozesu batetik datozen hondakin arriskutsuak, lixibiatzeko orduan hondakin ez-arriskutsuek bezala jokatzen dutenak.
 - Etxebizitza partikularretan, merkataritza-establezimenduetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortzen direnak, baita, arriskutsutzat sailkatuta ez daudelarik, eta beren ezaugarriak edo konposizioa aintzat hartuta, aurreko leku edo jardueretan sortzen direnen parekotzat jo daitezkeenak ere.
- 46.-** Zein hondakin onar daitezke zabortegian?
- Pneumatikoak.
 - Balioa eman dakiekeen hondakinak.
 - Hondakin erreaktiboak.
 - % 65etik beherako hezetasuna duten hondakinak.
- 47.-** Zein hondakini eman dakieke balioa?
- Beirari.
 - Eraikuntza- eta eraisketa-hondakinei.
 - Ontzi metalikoei.
 - Aurreko guztiei.
- 48.-** Zarata eta Bibrazioen aurkako Udal Ordenantzaren arabera, zer jotzen da zarata jarraitutzat?
- Kanpoko espazio librean dagoen presio akustiko haztatuaren maila da, soinu-iturri jakin batek sortua.
 - 10 segundotik gorako denbora-tarte batez entzuten den zarata da.
 - Modu automatikoan funtzionatzen duten motore edo tresna elektromekanikoei sortzen duten zarata da.
 - Danbateko, kolpe, arraste, erorketa edo leherketen ondorioz sortzen den zarata da.

49.- Zarata eta Bibrazioen aurkako Udal Ordenantzaren arabera, zenbat alditan banatzen da eguna (egunaren banaketa akustikoa)?

- a) Bi alditan: eguna —7:00etatik 22:00etara— eta gaua —22:00etatik 7:00etara—.
- b) Hiru alditan: goiza —7:00etatik 19:00etara—, arratsa —19:00etatik 22:00etara— eta gaua —22:00etatik 7:00etara—.
- c) Lau alditan: goiza —7:00etatik 11:00etara—, eguerdia —11:00etatik 14:00etara—, arratsaldea —14:00etatik 22:00etara— eta gaua —22:00etatik 7:00etara—.
- d) Ez dago egunaren banaketa akustikorik.

50.- Nola zehazten da zarata-maila?

- a) Zirkunstantzia bakoitzaren arabera zehaztuko da, parametrerik adierazgarriena neurtuz.
- b) Egindako neurketaren balio gorena hartuko da kontuan beti.
- c) Neurtzeko tresnaren SLOW integrazio-konstantearen bitartez zehaztuko da.
- d) Sonometroaren Kanpoko Zarata Maila (KZM) parametroa baliatuko da.

51.- Zer izan behar da kontuan zarata-neurketa bat egitean?

- a) Talka-zarata den, ala jarraitua.
- b) Tonu entzungarri, baxu edo oldarkorrik baden.
- c) Sonometroa behar bezala kalibratuta dagoen.
- d) Aurreko guztiak.

52.- Zarata eta Bibrazioen aurkako Udal Ordenantza kontuan izanik, zein da zuzena, jardueri galdatu beharreko baldintza hauetatik?

- a) Zamalanak egiteko eremu propio edukitzea galdatuko da etxebizitzan azpian kokatuta dauden 500 m²tik beherako janari-dendak direnean.
- b) Bibrazioak eta dardarak eragiten dituzten makina eta aparatuen ainguratzea bibrazioen kontrako elementuen gainean egin beharko da.
- c) Isolamendu akustiko integrala eduki beharko da galdara-gela komunitarioetan, bakar-bakarrik 75 dBtik gorako zarata igortzen bada.
- d) Soinua erreproduzitzeko sistema bat duten lokal guztiak eduki beharko dute 75 dBko edo hortik gorako aireko zaratarekiko isolamendu akustikoaren maila (Ia).

53.- Ostalaritza-establezimendu publikoei —hotelak izan ezik— buruzko udal ordenantzan ezartzen den lokalen sailkapenaren arabera, zein kategoriatakoak dira diskotekak?

- a) A kategoria.
- b) B kategoria.
- c) C kategoria.
- d) D kategoria.

54.- Ostalaritza-establezimendu berri bat jarri nahi du Jonek Gasteizko Judimendi auzoan. Kontuan izanik erabili nahi duen lokaletik 25 metrora pub bat dagoela, zer jar lezake?

- a) Dastaleku bat.
- b) Taberna eta jatetxea.
- c) Diskoteka bat.
- d) Beste pub bat.

55.- Ostalaritza-establezimendu publikoei —hotelak izan ezik— buruzko udal ordenantza kontuan izanik, baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?

- a) Debekatuta dago sukaldeetan itxi eta ireki daitezkeen leihoak jartzea.
- b) Establezimendu guztiek izan behar dute biltegi modura erabiltzeko gela bat, gutxienez 6 m²koa.
- c) Sukalderik ez duten establezimenduek enpresa baimenduek hornitutako produktu ontziratuak bakarrik saldu ahal izango dituzte.
- d) Musikarik gabeko jardueratzat sailkatutako establezimenduek ez dute inolako isolamendu akustikorik edukitzeko beharrik.

56.- Ostalaritza-establezimendu publikoei —hotelak izan ezik— buruzko udal ordenantzaren arabera, zein establezimendutan ez dago baimendua alkohola saltzea?

- a) Sukalderik gabeko taberna batean.
- b) Dastaleku batean.
- c) Karaoke batean.
- d) Ostalaritza-establezimendu orotan dago baimendua alkohola saltzea.

57.- Hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan hierarkia bat ezartzen da, lehentasun-hurrenkera baten arabera, ingurumenari dagokionez emaitza globalik onena lortzeko. Lehentasun-hurrenkera hauetatik, zein da zuzena?:

- a) Berrerabiltzea; birziklatzea; balioa ematea, eta deuseztatzea.
- b) Prebentzioa; berrerabiltzeko prestatzea; birziklatzea; bestelako balioa ematea, balio energetikoa barne, eta deuseztatzea.
- c) Prebentzioa; berrerabiltzeko prestatzea; birziklatzea; bestelako balioa ematea, balio energetikoa izan ezik, eta deuseztatzea.
- d) Aurrekoetako bat ere ez. Izan ere, hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan aplikatu beharreko lehentasun-hurrenkera dena delako hondakinaren izaeraren eta ezaugarrien mende dago.

58.- Hondakinak sortzen diren lekuan gorde, nahasi eta etiketatzeari gagozkiolarik, hondakinen ekoizlea edo hasierako beste edozein edukitzaile behartuta dago gordetzen dituen hondakinak higie- eta segurtasun-egoera egokietan edukitzera, bere esku dauden bitartean. Horrela, hondakinen biltegiratzearen iraupena, sortu diren lekuan, hau izango da:

- a) Urtebetetik beherakoa, arriskutsu ez diren hondakinen kasuan, horien destinoa edozein delarik ere.
- b) Hiru urtetik beherakoa, arriskutsu ez diren hondakinen kasuan, horien destinoa balioa ematea delarik, eta urtebetetik beherakoa, berriz, deuseztatzeko direlarik. Hondakin arriskutsuen kasuan, gehienez ere urtebetez eduki ahal izango dira gordeta sortu ziren lekuan, horien destinoa edozein delarik ere.
- c) Bi urtetik beherakoa, arriskutsu ez diren hondakinen kasuan, horien destinoa balioa ematea delarik, eta urtebetetik beherakoa, berriz, deuseztatzeko direlarik. Hondakin arriskutsuen kasuan, gehienez ere urtebetez eduki ahal izango dira gordeta sortu ziren lekuan, horien destinoa edozein delarik ere.
- d) Bi urtetik beherakoa, arriskutsu ez diren hondakinen kasuan, horien destinoa balioa ematea delarik, eta urtebetetik beherakoa, berriz, deuseztatzeko direlarik. Hondakin arriskutsuen kasuan, gehienez ere sei hilabetez eduki ahal izango dira gordeta sortu ziren lekuan, horien destinoa edozein delarik ere.

59.- Kokatuta dauden autonomia-erkidegoko ingurumen-organo eskudunaren baimentze-erregimenaren mende egongo dira honelakoak garatuko diren instalazioak:

- a) Hondakinen tratamendurako eragiketak, tratamendua egin bitartean bilketa-eremuan gordeta edukitzea barne, baita instalazio hori handitu, nabarmenki aldatu edo lekuz aldatzea ere.
- b) Bai hondakinen tratamendurako eragiketak —tratamendua egin bitartean bilketa-eremuan gordeta edukitzea barne, baita instalazio hori handitu, nabarmenki aldatu edo lekuz aldatzea ere—, bai hondakin arriskutsuak edo urtean 1000 t-tik gora hondakin ez-arriskutsu sortzen dituzten industria edo jarduerak instalatu, handitu, nabarmenki aldatu edo lekuz aldatzea ere.
- c) Ekoizpen-lekuan sortutako hondakin ez-arriskutsu propioak deuseztatzeko edo horiei balioa emateko eragiketak, hondakinak ekoizten dituzten entitate edo enpresek eragiketa horiek beren instalazioetan bertan egiten badituzte ere.
- d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena. Izan ere, kokatuta dauden autonomia-erkidegoko ingurumen-organo eskudunari aurkeztu beharreko aurretiko komunikazioaren erregimenaren mende daude hondakinak tratatzeko eragiketak.

60.- Elementu hauetatik zein ez da hiri-hondakin bat?

- a) Ibilgailu abandonatu bat.
- b) Maskota hil bat.
- c) Tximiniako errautsak.
- d) Taladrina pota bat.

61. Udal ordenantzak jarduera hauetako bat baimentzen du. Zein?

- a) Maskotak bide publikoan garbitzea.
- b) Autoak bide publikoan garbitzea.
- c) Ataria garbitu ondoren ur zikina saneamendu-sarera botatzea.
- d) Paperontzi batetik baliozko zerbait ateratzea.

62. Nire etxebizitza oso zikin dago, eta osasungarritasun arazoak ditu:

- a) Hori ez zaio inori axola. Jabetza pribatua da, eta etxe barruan ordenantza ez da aplikagarria.
- b) Ordenantzak garbi eta osasungarritasun-egoera egokian edukitzera behartzen nau.
- c) Alokatuta daukat; beraz, ez da nire erantzukizuna, maizterrena baizik.
- d) Osasungarritasun publikoaren arloko arazoak baditu, Udalari galda diezaioket garbitu dezala.

63.- Udalak ontziak biltzeko edukiontzi bat jarri du nire atariaren aurrean:

- a) Kontzientziazatuta banago, ontziak etxean bereizi eta edukiontzian utz ditzaket.
- b) Ontziak etxean bereizi eta edukiontzian uztera behartuta nago.
- c) Merkataritza-establezimendu bat badut bakarrik nago behartuta.
- d) Bereizi egin beharko nituzke hondakinak, baina aukera pertsonala da.

64.- Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak (2008-2016) hau aurreikusten du:

- a) Industria-hondakinak tratatzeko lantegi bat eraikitzea.
- b) Jundizen industria-hondakin arriskutsuak biltzeko *garbigune* bat eraikitzea.
- c) Hondakinak minimizatu eta birziklatzeari buruzko interpretazio-zentro bat eraikitzea.
- d) Araztegiko lohiak lehertzeko lantegi bat eraikitzea.

65.- 2016an material birziklatuen portzentaje jakin bat gainditzea jarri zen helburutzat Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean (2008-2016). Zein portzentaje?

- a) % 35.
- b) % 50.
- c) % 60.
- d) % 75.

66.- Zein da Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean (2008-2016) gaztelaniaz *5 erreen estrategia* deitzen zaiona?:

- a) Gutxitu – berrerabili – birziklatu – birbanatu – erantzule egin.
- b) Gutxitu – berrerabili – birziklatu – balioa eman - erantzule egin.
- c) Gutxitu – berrerabili – birziklatu – errefusatu – erantzule egin.
- d) Gutxitu – berrerabili – birziklatu – balioa eman – errefusatu.

67.- Zertan datza ureztatze mistoa?

- a) Eskobatze mekanikoa eta ureztatze mekanikoa batera egitean.
- b) Galtzadak ureztatzea eta espaloiak ureztatzea batera egitean.
- c) Mekanikoki ureztatzean eta aldi berean langile batek hodi malguaz presioz ureztatzean.
- d) Ureztatzea gizonezko nahiz emakumezko batek egin dezakeela esan nahi du.

68.- Alboko kargako edukiontziak hustea atzeko kargako edukiontziak hustea baino merkeagoa da. Zergatik?

- a) Alboko kargako edukiontziak biltzeko kamioiak atzeko kargako edukiontziak biltzeko kamioiak baino merkeagoak dira.
- b) Ateko kargako kamioiekin bilketa nahitaez gauez egin behar da; alboko karga dutenekin, berriz, egunez egin daiteke.
- c) Ateko kargako edukiontziak alboko kargakoak baino merkeagoak dira.
- d) Alboko kargako edukiontziak biltzeko atzeko kargako edukiontziak biltzeko baino langile gutxiago behar da.

69.- Hondakin hauetako bat ezin da puntu berde mugikorrean utzi. Zein?

- a) Inprimagailu-tonerra.
- b) Pintura poto bat.
- c) Erradiografiak.
- d) Iraungitako botikak.

70.- Hondakin hauetako bat ezin da *garbigunean* utzi. Zein?

- a) Hozkailu bat.
- b) Lantegi bateko motor-olioa.
- c) Obra txiki bateko hondakinak.
- d) Su itzalgailu erabili bat.

Jar ezazu hondakin bakoitza egoki den edukiontzian (Gasteizko edukiontzien koloreak kontuan izanik):

71. Aluminio-papera:

- a) Tapa horia duen edukiontzia.
- b) Tapa berdea duen edukiontzia.
- c) Tapa laranja duen edukiontzia.
- d) Tapa grisa duen edukiontzia.

72. Plastikozko jostailu bat:

- a) Tapa horia duen edukiontzia.
- b) Tapa berdea duen edukiontzia.
- c) Tapa laranja duen edukiontzia.
- d) Tapa grisa duen edukiontzia.

73. Portzelanazko katilu hautsi bat:

- a) Tapa horia duen edukiontzia.
- b) Tapa berdea duen edukiontzia.
- c) Tapa laranja duen edukiontzia.
- d) Tapa grisa duen edukiontzia.

74. Lixiba-botila huts bat:

- a) Tapa horia duen edukiontzia.
- b) Tapa berdea duen edukiontzia.
- c) Tapa laranja duen edukiontzia.
- d) Tapa grisa duen edukiontzia.